

LUR ETA INGURUMEN ZIENTZIAK

DEPARTAMENTUA	MINTEGIA: BIOLOGIA ETA GEOLOGIA
ZERTARAKO	<p>Ingurutik jasotzen ditugun baliabideen ustiaketari buruz eta horrek sortzen dituen inpaktuez ikasi eta hausnartu nahi duenarentzat zuzenduta egongo da.</p> <p>2.batxilergoko ikasleei zuzenduta.</p>
ZER IKASIKO DUZU	<p>Ikasgai honetan Lurraren azterketa egiten da, berau osatzen duten sistema desberdinak landuz: atmosfera, hidrosfera, geosfera eta biosfera. Sistema bakoitzaren osaera, funtzionamendua, euren arteko elkarrekintza eta bakoitzean dauden mehatxu eta arriskuak landuko dira. Honen harira, gizarteak (gizakiak) ingurunea aldarazteko duen ahalmenez eta eraginaz, eta gizadiaren eta ingurumenaren arteko elkarrekintza sakonaz pentsaraztea da helburua. Gizakiak sistema bakoitzetik dituen beharrak (ustiatzen dituen baliabideak) identifikatu eta zer nolako inpaktua duen aztertuko da. Eduki teorikotik haratago, ikerkuntzan aritzeko aukera zabala egongo da. Zentzu honetan, honako gaiak ikertuko dira: atmosfera, hidrosfera, geosfera eta lurzorua, energia-iturriak, biosfera eta paisaia. Garrantzia berezia emango zaio gaur eguneko ingurumen-arazo larrienari, hots, larrialdi klimatikoari.</p>
METODOLOGIA	<p>Jakintza teorikoez haratago, gai bakoitzarekin <u>ikasleengandik sor daitezkeen kezka, galdera edo interesetara</u> lotutako lan praktikoak burutuko dira.</p> <p>Horretarako jarduera praktikoak egingo dira, ikerketak osatu, elkarte desberdinekin harremana sortu, aditu eta espezialistak gonbidatu konferentziak eginez, teknologia berrien bidezko lanak sortu eta abar.</p>
EBALUAZIOA	<p>Aurrera eramaten diren hainbat lan praktiko bidez (egitura desberdinekoak: jardunaldi, irteera, aurkezpen, aplikazio informatiko, podcast, hausnarketa idatzi, bideo...) ebaluatuko da. Jarrera aktiboa, interesekoa eta ekintzailea kontuan hartuko dira.</p>
OHARRAK	